



Gaur egungo gizartean naturarekin daukagun harremana galtzen ari gara pixkanaka. Gure taldeak harreman hori indartzeko beharra identifikatu du. Horregatik **BIZIRIK** enpresa sortu dugu, arazo honi irtenbide bat emateko. Eskeiniko dugun zerbitzua, Irati basoan zehar txangoak antolatzea izango da, euri zein eguzki eginda ere eguraldia aitzakia ez dadila izan! . Gure proposamenak balio kualitatiboa duela esan genezake, jarraian azalduko dugu zehatzago.

## 1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure enpresan, hainbat aspektu hartu ditugu kontuan, proiektu berritzaile eta onuragarri bat sortzeko. Ondorengo parrafoetan azalduko ditugu aspektu horiek.

Lehenik eta behin, nabarmendu nahi dugu irteerak bezero bakoitzaren ezaugarri, behar eta interesen arabera **pertsonalizatzeko** aukera izango dela.

### - **Pertsonalizatua:**

Bezeroekin biltzen garenean, gure zerbitzuak dituen eskaintza guztien inguruan azalpenak emango dizkiegu, eta guk daukagun eskaintzaren barruan, **beraiek erabaki** ahal izango dute irteeraren nondik norakoa.

Ibilbideari dagokionez, aukera **aniztasuna** ahalbidetzen dugu. Irati Basoan zehar, bide ezberdinak antolatzen ditugu, bakoitzak bere ezaugarri propioak dituelarik. Aukeratzen den ibilbidea aukeratzen dutela ere, basoan zehar, **jolas gune** desberdinak egongo dira, eta horietan jolasteko aukera izango dute.

Horretaz gain, **lo egiteko** bi eskaintza desberdin ditugu: Alde batetik, ostatua daukagu, Otsagabia herrian kokatuta. Bestalde, kontuan harturik gaur egungo merkaturian autokarabana - furgoneta erabilera ugaria dela, hauek aparkatzeko gune bat ere prestatuta daukagu.

Gauetan, **ekintza ezberdinak** antolatuko dira Otsagabian, nahi duten bezeroek parte hartu dezaten.

## - **Arropa**

Gure proiektuaren berezitasunetako bat da eguraldia naturaz gozatzeko oztopo gisa ez ikustea. Horregatik, neurri ezberdinetako **euritako buzoak** eta **katiuskak** eskainiko dizkiegu bezeroei. Arropa hau, hemengo jostun enpresa txiki baten laguntzaz diseinatuko dugu, hurrei zein helduei **erosotasuna** eta mugimendu askea bermatuz.

## - **Natura**

Jakitun gara Euskal Herrian **eguraldia** ezegonkorra dela eta euri asko egiten duela. Hau horrela, kanpo ekintza asko bertan behera utzi behar izaten dira sarritan. Gure enpresan irtenbide bat eman nahi diogu horri, txangoak jarraitzeko baliabideak eskainiz, eta euriari ere probetxu ateratzen eta horrekin gozatzen. Hurrei eta helduei onura ugari ematen baitizkie naturan ibiltzeak.

## - **Profesionalak**

Irteeretan zehar izango ditugun bidelagunen artean arlo ezberdinetako **profesionalak** egongo dira, besteak beste, biologoa, hezitzailea, psikologoa... Profesional hauek gurekin egoteak bezeroek **modu ludiko** batean ikasteko edo formatzeko aukera izatea ahalbidetzen du. Taldearen profilaren arabera erabakiko dugu zein aditu izango diren haien ibilbidean bidelagun.

Aipatutako berezitasunez gain, pertsonarteko harremanei ere garrantzi handia ematen diegu. Honenbestez, familia bat, eskola bateko haur taldea edo lagun kuadrila bat izan, euren arteko harremanak indartzen lagunduko dieten ekintzak proposatuko ditugu.

Puntu honekin amaitzeko, azpimarratu nahi dugu gure zerbitzua guztientzat eskuragarri jarriko dugula. Batetik, erreserba online, telefonoz edo aurrez aurre egiteko aukera ematen dugu. Bestetik, prezio merkean jarriko ditugu, ordaintzeko aukera ezberdinak eskainiz.

Dirua ez da izango oztopo gure irteerez gozatzeko!

### **Ibilbide motza, prezioak:**

- 0-3 urte tartekoak :  
dohainik/doan
- 3-6 urte tartekoak: 5€
- 7-18 urte tartekoak: 7€
- 19-65 urte tartekoak: 12€
- 65 urtetik aurrekoak: 10€

### **Ibilbide luzea, prezioa:**

- - 0-3 urte tartekoak :
- - dohainik/doan
- - 3-6 urte tartekoak: 8€
- - 7-18 urte tartekoak: 10€
- - 19-65 urte tartekoak: 15€
- - 65 urtetik aurrekoak: 13€

**Taldearen arabera:**

- Eskolatik datozenak : %5eko beherapena
- Talde osatuak datozenak, beti ere 10tik gora, %5eko beherapena
- Familia ugariak %10eko beherapena
- Gazte txartela dutenentzat %10eko beherapena

Atala honekin amaitzeko aipatu nahi dugu urteko edozein urtaro edo egunetan irekita egongo litzatekeela jendeak naturaz gozatzeko.